


## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Atal honetan gure bezeroekin edukiko ditugun harreman desberdinak eta hauen ezaugarriak azalduko ditugu, bezeroarekin harreman on bat edukitzea funtsezkoa delako produktu bat merkaturatzeko unean. Gainera, hauek lortzea eta mantentzea oso garrantzitsua denez, horretarako hainbat ekintza aurrera eramatea pentsatu dugu.

Zerotik sortutako enpresa hasiberri bat garenez, hasieran ez dugu bezerorik edukiko. Hauek erakartzeko publizitatea egingo dugu. Honetarako Instagram, Facebook eta TikTok sare sozialak erabiliko ditugu (@GDI), hauetan gure konpasak zozketatu eta hauek erabiltzeak dakartzan onurak erakusten dituzten bideoak igoko ditugu adibidez. Behin lortutako bezeroak ez galtzeko, lehenengo erosketatik aurrera erosкета berri bat egiten duten bakoitzean beherapen txiki batzuk egingo dizkiegu, gure enpresarekin lotuta jarrai dezaten.

Bezereen iritzia oso kontuan hartzea da gure helburuetako bat, horretarako gure sare sozialetan maiztasunez galdetuko diegu gure produktuarekiko duten iritzia edo zer hobetuko luketen oraindik ere konpas hobe bat sortzeko.



Bezero gehiago lortzeko beste ekintza bat, gure bezero potentzialak izan daitezkeen famatuei eta ausaz aukeratutakoei gure konpasak oparitzea izango da, horrela hau erabili eta beraien iritzia beraien inguruan zabal dezaten.

Gure produktua online eta denda fisikoetan salduko dugunez, bezeroekin izango dugun harreman-mota desberdina izango da. Alde batetik, gure produktua online salduko dugu, zehazki Amazonen bidez. Hau automatizatutako zerbitzua da; izan ere, erabiltzaile/bezero guztiei arreta berdina eskaintzen zaie, era automatikoan.

Bestalde, gure konpasak denda fisikoetan ere salduko ditugunez, gure bezeroei emango diegun harreman mota aurrez aurreko laguntza izango da, hau da, pertsona bakoitzari laguntza emango zaio hauek dituzten galdera eta kezkek erantzunez eta produktuaren xehetasun zein abantailak azalduz.

Hizkuntzari dagokionez, hasiera batean erdaraz komunikatuko gara gure bezeroekin sare sozialetan zein denda fisikoetan, Espainia mailan salduko dugunez, hizkuntza honek publiko zabal batekin hartu-emanetan jartzea ahalbidetzen digulako. Hala ere, erdaraz hitz egiten ez dakitenekin kontaktuan jartzeko ingelesa erabiliko dugu.

